

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak ikastetxeen oinarrizko agiritzat onartu du Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua

Ikasturte hasierako jarraibideen inguruko ebazpenari jarraipena emanez, Nafarroako Gobernuak Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua arautzen duen Foru Agindua onartu du, Nafarroako Eskola Kontseiluaren ahobatezko oniritziarekin

Ostirala, 2019.eko martxoak 15

Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren elaborazioa arautzen duen Hezkuntzako kontseilariaren otsailaren 19ko [16/2019 Foru Aginduaren](#) bitartez, dokumentu hau ikastetxeen oinarrizko funtzionamendurako agiri bihurtu da.

Proiektu europarraren eraikuntzarako eleaniztasuna ezin errefusatuzko helburutzat jotzen duten Europar Batasunaren zuzentarauei jarraiki, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak uste du hizkuntzen koordinazio eta tratamendu integratua eta eleaniztasunaren eta hizkuntza aniztasunaren sustapena interes estrategikoko helburuak

direla Nafarroako hezkuntza sistema hobetzeko hizkuntza komunikazioaren ikuspegitik, eta helburu horiek lortzeko funtsezko tresnetako bat Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua dela, hizkuntzen arloko koordinazioa, adostasuna eta errespetua bultzatzen dituen heinean.

Ikastetxeetako beste plan eta proiektu askotan bezalaxe, hezkuntza komunitatearen partaidetza giltzarrizkoa da hizkuntza plangintza eraikitzeko eta hizkuntzek ikastetxe bakoitzean duten egoeraren diagnostik abiatuta adostutako helburuak txertatzeko. Horren kariaz, Mikel Urmeneta artista nafarrak Hizkuntza Proiektuaren zabalkunderako landutako triptikoa helarazi zaie ikastetxe guztiei, ekimenarekiko jakinmina eta partaidetza sustatzeko xedez.

Halaber, Gobernuak Hizkuntza Proiektua lantzeko baliabideak bildu



Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren kartela

ditu [webgune](#) batean, ikastetxeek egin beharreko lana errazteko asmoz.